| EZOHIKO OSOKO BILKURA / PLENO EXTRAORDINARIO<br><br>2023KO URRIAREN 6A / 6 DE OCTUBRE DE 2023 | |
|---|---|
| **BERTARATUAK / ASISTENTES** | |
| **IDAZKARI NAGUSIA/ SECRETARIO GENERAL**<br><br>D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna | **ALKATEA / ALCALDE**<br><br>D. Jon Iraola Iriondo jauna<br><br>**ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE**<br><br>D. Alberto Albistegui Zamacola jauna<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea<br>Dña. Vanesa Hortas Mojón andrea<br><br>**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**<br><br>D. Andoni Zabala Atristain jauna<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna<br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea<br>Dña. Arantzazu Mata Egiguren andrea<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna<br>Dña. Nerea Barruetabeña Garate<br>Dña. Hiart Cabrera Ansola andrea<br>Dña. Leire Alberdi Arriola andrea<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna<br>Dña. Amaia Albizu Llubia andrea<br>Dña. Maria Elena Ibañez Anuncibay andrea<br>Dña. María Mercedes Garate Larrañaga andrea<br>D. Jon Pérez Illana jauna<br>Dña. María Isabel Fernández Pejenaute andrea |

**Akta hau osoko bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:**

**La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:**

http://eibar.videoacta.es?pleno=20231006&instante=0

Eibarko udaletxearen Batzar Aretoan, 2023ko urriaren 6an, goizeko zortzi eta erdiak izanik, Udalbatza bildu zen ezohiko bilkuran, goian aipaturiko jaun-andreek osatua. Archeli Mesonero andreak PSE-EE (PSOE) eta Díaz Gutiérrez (EH Bildu) eta De la Hoz Gorriti (Eibarko EAJ-PNV) jaunek bere ezin etorria justifikatu dute.

En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a las 8:30 horas del día 6 de octubre de 2023, se reunió en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, formado por las señoras y señores anteriormente mencionados/as; habiendo justificado su ausencia la señora Archeli Mesonero (PSE-EE (PSOE)) y los señores Díaz Gutiérrez (EH Bildu) y De la Hoz Gorriti (Eibarko EAJ-PNV).

Alberdi Arriola andrea (EH Bildu) bilkurara sartu da bilkura hasi ondoren (8:43) eta bilera utzi du bozketa egin baino lehen (9:36).

La señora Alberdi Arriola (EH Bildu) se incorpora a la sesión una vez iniciada ésta (8:43) y abandona la sesión con anterioridad a las votaciones (9:36).

**Alkate-Udalburu jaunak** bilerari hasiera eman dio eta honako gai-zerrenda hau aztertu da:

El **Sr. Alcalde-Presidente** declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

## GAI-ZERRENDA

## ORDEN DEL DÍA

**Atal bakarra:**

**Ordenantza Fiskalak eta Prezio Publikoak aldatzea 2024. Urterako.**

**Punto único:**

**Modificación de Ordenanzas Fiscales y de precios públicos para el año 2024.**

Eztabaidari hasiera eman ondoren, interbentzioak izan dira, aktari erantsitako saioaren grabazioan jasotakoak, alegia.

Abierta la deliberación, se realizan intervenciones en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Acta.

Interbentzioen ondoren, Elkarrekin Podemos / Ezker Anitza-IU / Alianza Verde Eibar udal-taldeak aurkeztu dituen zuzenketak edo enmiendak bozkatu dira.

Tras las intervenciones, se someten a votación las enmiendas presentadas por el Grupo Municipal Elkarrekin Podemos / Ezker Anitza-IU / Alianza Verde Eibar.

**1. ZUZENKETA (ALDATZEKOA)**

**ENMIENDA DE MODIFICACIÓN nº 1**

BOZKETAREN EMAITZA: EZ ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: NO APROBADA.

ALDEKO BOTOAK: 1 - ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE.

KONTRAKO BOTOAK: 7 - PSE-EE (PSOE).

ABSTENTZIOAK: 9 - EH Bildu (4), Eibarko EAJ-PNV (5).

VOTOS A FAVOR: 1 - ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE.

VOTOS EN CONTRA: 7 - PSE-EE (PSOE).

ABSTENCIONES: 9 - EH Bildu (4), Eibarko EAJ-PNV (5).

Hutsik dauden etxebizitzei Ondasun Higiezinen gaineko Zergan errekargua ezartzea; honela geratzen da:

Implementación de recargo en el impuesto de Bienes Inmuebles a las viviendas vacías, quedando de la siguiente manera:

Bizitegi-erabilerako higiezinak subjektu pasiboaren edo erabilera errentan eman edo laga zaien hirugarren pertsonen

Tratándose de inmuebles de uso residencial que no constituyan la residencia del sujeto pasivo o de terceras

bizileku ez badira, Udalak zergaren kuota likidoaren % 150eko errekargua eskatuko du.

personas a las que se les haya sido arrendada o cedido su uso, el Ayuntamiento exigirá un recargo del 150% de la cuota líquida del impuesto.

Errekargu hori, zerga honen subjektu pasiboei eskatuko zaiena, aplikatzen den zergaren une berean sortuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Dicho recargo, que se exigirá a los sujetos pasivos de este tributo, se devengará en el mismo momento que el impuesto sobre el que se aplica y se liquidará anualmente, conjuntamente con la cuota.

Errekargu hau aplikatzeari dagokionez, bizitegi-erabilerako higiezintzat hartuko dira Katastroan etxebizitzaren erabilera edo xede gisa jasota dauden lokalak. Etxebizitzaren eranskinak sartuko dira, betiere erregistroko finka bakarra osatzen badute. Ondorio berberetarako, bizitegi-erabilerako higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, baldin eta zerga sortzen den egunean, biztanleen erroldan haren okupatzailearen edo okupatzaileen ohiko bizilekua dela jasota badago.

A efectos de la aplicación del presente recargo, se entenderá por inmuebles de uso residencial los locales que estén recogidos como de uso o destino de vivienda en el Catastro. Se incluirán los anexos a la vivienda siempre que formen una finca registral única. A los mismos efectos, se presumirá que un inmueble de uso residencial es residencia habitual cuando a fecha de devengo del impuesto, en el padrón de habitantes conste que constituye la residencia habitual de su o sus ocupantes.

Errekargu hori ez zaie inolaz ere aplikatuko izaera sozialeko etxebizitza publikoen planei bideratutako bizitegi-erabilerako ondasun higiezinei.

En ningún caso será de aplicación dicho recargo a los bienes inmuebles de uso residencial destinados a planes de vivienda pública de carácter social.

Etxebizitza hauek ez dute errekargurik izango:

Asimismo, no estarán sujetas al recargo las siguientes viviendas:

1. Errentan utzitako etxebizitzak.

Inguruabar hau errenta-kontratuaren kopia aurkeztuta egiaztatuko da.

2. Higiezinen merkatuan saltzeko edo errentan uzteko bi urte baino gutxiagoan dauden etxebizitzak, baldin eta:

a) Etxebizitzen salmenta-prezioak etxearen balio katastrala 1,5 koefizientearekin biderkatuta ateratzen den zenbatekoa gainditzen ez badu.

b) Urte osoko errentaren prezioak etxearen balio katastrala 1,5 koefizientearekin biderkatuta ateratzen den zenbatekoaren % 3a gainditzen ez badu; ezta hileko 600 eurotik gorako zenbatekoa ere.

Inguruabar hauek honela egiaztatuko dira:

c) Higiezinen agentzia baten bitartekaritza-zerbitzuak erabiltzean: saltzeko edo errentan uzteko kontratuaren kopia aurkeztuta.

d) Higiezinen agentzia baten bitartekaritza-zerbitzurik erabiltzen ez denean: deklarazio bat eginda, etxebizitza higiezinen merkatuan dagoela egiaztatzeko frogabideekin lagunduta

1. Las viviendas arrendadas.

Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación de una copia del contrato de arrendamiento.

2. Las viviendas que estén ofertadas en el mercado inmobiliario para su venta o arrendamiento durante menos de dos años y siempre que:

a) Su precio de venta no supere su valor catastral multiplicado por el coeficiente 1,5.

b) El precio del alquiler anualizado no supere el 3% del valor que resulte de multiplicar el valor catastral de la vivienda por el coeficiente 1,5, ni el importe mensual de 600 €.

Estas circunstancias se acreditarán:

c) Cuando se utilicen servicios de mediación inmobiliaria: Mediante copia del correspondiente contrato para la venta o arrendamiento.

d) Cuando no se utilicen servicios de mediación inmobiliaria: Mediante una declaración, acompañada de los medios de prueba que acrediten la puesta a disposición del mercado inmobiliario de

(esaterako, saltzeko edo errentan emateko dagoela dioten kartelen argazkiak, web-orrietan egindako publizitatearen egiaztagiriak edo antzekoak).

la vivienda (como, por ejemplo, fotografías con carteles de venta o arrendamiento, justificantes de publicidad en páginas web, o similares).

3.- Aurri-egoeran dauden edo birpartzelazio-proiektu onetsia duten etxebizitzak

3.- Las viviendas en situación de ruina o con proyecto de reparcelación aprobado.

Aurri-egoeran dauden edo birpartzelazio-proiektu onetsia duten etxebizitzak. Errekarguaren salbuespena honako kasu honetan ere aplikatuko da: jabeak bizigarritasun falta egiaztatu dezakeenean, betiere jabeak ez badio justifikazio barik uko egin etxebizitza egoera duinean mantentzeko obligazioari.

Viviendas en situación de ruina o proyecto de reparcelación aprobado. La exención del recargo se extenderá a situaciones en las que la persona propietaria pueda acreditar la falta de habitabilidad, siempre que el propietario/a no haya renunciado injustificadamente a la obligación de mantener la vivienda en una situación digna.

Inguruabar hau Udalak berak egiaztatuko du, ofizioz.

Esta circunstancia se comprobará de oficio por el Ayuntamiento.

4.- Ostatu, pentsio edo hotel diren etxebizitzak, baldin eta dagokien jarduera-lizentzia badute

4.- Las viviendas destinadas a alojamiento, pensión u hotel siempre que cuenten con la licencia de actividad correspondiente.

Inguruabar hau Udalak berak egiaztatuko du, ofizioz.

Esta circunstancia se comprobará de oficio por el Ayuntamiento.

5.- Erabilera profesionaletarako, merkataritza- edo enpresa-erabilerarako etxebizitzak; elkarte politikoen, elkarte sindikalen edo enpresa elkarteen egoitzak; edo diru irabazi asmorik ez duten elkarteak hartzen dituztenak.

5.- Las viviendas destinadas a usos profesionales, comerciales y empresariales o que sean sede de asociaciones políticas, sindicales o empresariales o en las que se hallen ubicadas asociaciones sin ánimo de lucro.

Inguruabar hau Udalak berak egiaztatuko du, ofizioz.

Esta circunstancia se comprobará de oficio por el Ayuntamiento.

6.- Jabearen heriotzagatik hutsik geratu diren etxebizitzak

6.- Las viviendas que hayan quedado vacías por fallecimiento de la persona propietaria.

Kasu honetan, ez da errekargurik aplikatuko, heriotzaren egunetik zenbatzen hasita bi urteko epean.

En este caso, la no sujeción al recargo tendrá un plazo de un año contado a partir del día de fallecimiento.

Hori egiaztatzeko, heriotza-ziurtagiria aurkeztuko da.

Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación del correspondiente certificado de defunción.

7.- Etxearen jabea hirugarren adinekoen egoitzan sartzeagatik hutsik geratu diren etxebizitzak

7.- Las viviendas que hayan quedado vacías como resultado del ingreso de la persona propietaria en residencias de la tercera edad.

Kasu honetan, ez da errekargurik aplikatuko hirugarren adinekoen egoitzan

En este caso, la no sujeción al recargo tendrá un plazo de un año contado a

sartzen den egunetik zenbatuta urtebeteko epean, baina urtero egiaztatu beharko da inguruabar hori.

partir del día de ingreso en la residencia, pero deberá acreditarse tal circunstancia anualmente.

Inguruabar hau egoitzak egindako ziurtagiria aurkeztuta egiaztatuko da, han azalduko baita zein egunetan sartu zen.

Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación del correspondiente certificado de la Residencia en el que se indicará la fecha de ingreso.

8.- Adinagatik edo mendekotasun-egoeragatik, etxejabea beste etxe batera eraman denean eta haren etxea hutsik geratu denean.

8.- Las viviendas que hayan quedado vacías por motivos de edad o dependencia y que requieran el traslado de la persona propietaria a otra vivienda.

Kasu honetan, ez da errekargurik kobratuko bi urteko epean.

En este caso, la no sujeción al recargo tendrá un plazo de dos años.

Kasu honetan, mendekotasunari buruzko balorazioaren justifikazioa eskatuko da. Ez da horrelako baloraziorik eskatuko zerga sortzen den unean menpekotasun-egoeran dagoen pertsonak 85 urte beteta baditu.

Este supuesto requerirá de valoración de la dependencia justificativa. Esta valoración no se exigirá cuando la persona dependiente haya cumplido 85 años en el momento de devengo del impuesto.

Inguruabar hau menpekotasuna egiaztatuko duen dokumentua aurkeztuta egiaztatuko da, edo, 85 urtetik gorako jabea izanez gero, Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuta. Horrez gain, mendekoa eta haren zaintzailea etxebizitza berean erroldatuta egotea

Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación del correspondiente documento que acredite la dependencia o, en el caso de persona propietaria mayor de 85 años, mediante la entrega de copia del Documento Nacional de Identidad. Además, será

eskatuko da, horretarako bidezkoa den erroldatze-ziurtagiri bidez.

necesario que se acredite, mediante el correspondiente certificado de empadronamiento, que dependiente y cuidador se encuentran empadronados en la misma vivienda.

9. - Etxejabea edo haren ezkontidea Autonomia Erkidegotik kanpo dagoen beste udalerri batera, lanagatik, bizitzera joan eta hutsik geratu diren etxebizitzak.

9.- Las viviendas que hayan quedado vacías como consecuencia del traslado de la persona propietaria del inmueble o de su cónyuge a otro municipio fuera de la Comunidad Autónoma por razones laborales.

Kasu honetan, ez da errekargua ordaindu beharrik izango bi urteko epean, beste Autonomia Erkidego batera joandako egunetik aurrera zenbatuta.

En este caso, la no sujeción al recargo tendrá un plazo de dos años contados a partir del día traslado a otra Comunidad Autónoma.

Inguruabar hau, etxejabeak gaur egun duen bizilekuaren erroldatze-ziurtagiria eta lan egiten duen enpresak luzatutako ziurtagiria aurkeztuta egiaztatuko da.

Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación del certificado de empadronamiento de la persona propietaria en su domicilio actual y certificado emitido por la empresa en la que la persona propietaria de la vivienda presta sus servicios.

10.-Etxejabeen lehen graduko ondorengoek duten etxe-premiari erantzuteko erabiltzen diren etxebizitzak.

10.- Las viviendas destinadas por las personas propietarias a satisfacer las necesidades habitacionales de descendientes en primer grado de las personas propietarias.

Ez da errekargurik kobratuko urtebeteko epean, errekargua eskatzen den ekitaldia barne.

La no sujeción al recargo tendrá un plazo de un año incluido el ejercicio para el que se solicita ésta.

Hiru urteko epea amaitu ondoren etxebizitza ez badu okupatu etxejabeen lehen graduko ondorengoren batek, jabeari, ordura arte aplikatu ez zaizkion errekargu guztiak ordaintzea eskatuko zaio.

Si finalizado el plazo de tres años la vivienda no ha sido ocupada por ningún descendiente en primer grado de sus propietarios, se exigirá al propietario el abono de los recargos no aplicados.

Inguruabar hau egiaztatzeko etxejabeak deklarazio bat aurkeztuko du.

Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación de una declaración por parte de la persona propietaria de la vivienda.

11.- Zerga sortzen den unean eraberritzen ari diren higiezinak

11.- Los inmuebles que estén siendo reformados en el momento de devengo del Impuesto.

Inguruabar hau egiaztatzeko obrei dagokien udal-lizentziaren ebazpena aurkeztuko da.

Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación de la resolución de concesión de la licencia municipal correspondiente.

Salbuespen hau behin bakarrik eskatu ahal izango da.

Esta exención podrá solicitarse solo una vez.

12.-Zerga sortu aurreko 6 hilabeteetan saldu edo erosi diren etxebizitzak

12- Las viviendas objeto de compraventa en los 6 meses inmediatamente

anteriores a la fecha de devengo del impuesto.

Inguruabar hau Udalak egiaztatuko du, ofizioz.

Esta circunstancia se comprobará de oficio por el Ayuntamiento.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Etxebizitza bat eskuratzea arazo handia da eibartarrentzat, eta, bereziki, gazteentzat. Etxebizitza bat erosteko prezioa oso altua da, bai eta alokatzeko prezioa ere. Prezio hori izugarri igo da azken urteotan, neurri handi batean, Eibarren alokairuko etxebizitza gutxi dagoelako. Horregatik, uste dugu neurri honekin merkatuan jar ditzakegula Eibarren dauden 1.000 etxebizitza hutsen zati bat, hala premiaren eta eraginkortasunaren printzipioa betez.

El acceso a una vivienda es un gran problema para la ciudadanía eibarresa, y en especial para la juventud. El precio de compra de una vivienda es altísimo, así como los precios de los alquileres de vivienda. Este precio se ha elevado en los últimos años de manera alarmante, ayudado en parte, por la falta de vivienda en alquiler de Eibar. Por ello consideramos que esta medida puede contribuir a la puesta de una parte de las más de 1.000 viviendas vacías que tenemos en el municipio de Eibar, cumpliendo con el principio de necesidad y eficacia.

Segurtasun juridikoaren printzipioa ere betetzen du; izan ere, 4/2012 Foru Arauak errekarguaren eta haren mugen xehetasuna jasotzen ditu; hortaz, betetzen du araua.

En cuanto al principio de seguridad jurídica también se cumple, ya que en la Norma Foral 4/2012 recoge pormenores de recargo y sus limitaciones, cumpliendo con dicha norma.

Aurrekontu-egonkortasunaren eta -iraunkortasunaren printzipioa ere betetzen

El principio de estabilidad presupuestaria y de sostenibilidad también quedaría

da, Udalaren diru-bilketaren igoera ekarriko luke-eta.

cubierto ya que supondría un aumento de la recaudación para las arcas municipales.

**2. ZUZENKETA**

BOZKETAREN EMAITZA: EZ ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 1 - ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE.

KONTRAKO BOTOAK: 7 - PSE-EE (PSOE).

ABSTENTZIOAK: 9 - EH Bildu (4), Eibarko EAJ-PNV (5).

Kentzea Eliza katolikoak kulturako ez den edozein jabetzatan dituen ondasun higiezinen gaineko zergaren ordainketaren salbuespena.

JUSTIFIKAZIOA

Ez da ezohikoa erakunde erlijiosoek beren pribilegio eta salbuespen fiskalak baliatzea beren instalazioen barruan kultu-jarduerekin zerikusirik ez duten jarduera ekonomikoak egiteko. Horregatik, zergak ordaindu behar dituzte, inolako araubide berezirik gabe. Hori dela-eta, proposatzen

**ENMIENDA 2**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: NO APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 1 - ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE.

VOTOS EN CONTRA: 7 - PSE-EE (PSOE).

ABSTENCIONES: 9 - EH Bildu (4), Eibarko EAJ-PNV (5).

Eliminación de la exención del pago del Impuesto sobre Bienes Inmuebles del que goza la Iglesia católica en cualquiera de sus propiedades que no esté dedicada a culto.

JUSTIFICACIÓN

No es inusual que las instituciones religiosas aprovechen sus privilegios y exenciones fiscales para desarrollar actividades económicas dentro de sus propias instalaciones que nada tienen que ver con actividades de culto. Por ello, deben contribuir sin ningún tipo de

dugu Eliza katolikoak Eibarren dituen jabetzen azterlan bat egitea, haien erabilerak aztertzea, eta ikusten bada higiezinak ez direla erabat kulturako erabiltzen, dagozkien HGZ zerga ordaintzea. Neurri honek bete egingo lituzke premiaren eta eraginkortasunaren printzipioak, azaldu den bezala.

régimen especial. Por ello proponemos hacer un estudio de las propiedades que la Iglesia católica posee en Eibar, comprobar sus usos, y si no son dedicados por completo al culto dichas propiedades paguen el IBI que les corresponde. Esta medida cumpliría los principios de necesidad y eficiencia, como queda explicado.

Segurtasun juridikoaren printzipioa. HGZ ordaintzearen salbuespena kentzea martxan jarri da dagoeneko udalerri batzuetan , esaterako Valentzian edo Bartzelonan. Aurten bertan, justiziak abalatu egin du Bartzelonako Udalaren neurri hau.

Principio de seguridad jurídica. Esta eliminación de la exención del pago del IBI a la Iglesia ya ha sido puesta en marcha en municipios como Valencia o Barcelona. Este mismo año la justicia ha avalado esta medida en el ayuntamiento de Barcelona.

Aurrekontu-egonkortasunaren eta -iraunkortasunaren printzipioa. Hau ere beteko litzateke; izan ere, ez badago halako jabetzarik ez litzateke aldaketarik egongo zergen bilketan. Baina aldaketak egongo balira, handitu egingo litzateke diru-bilketa.

Principio de estabilidad presupuestaria y de sostenibilidad. También se cumpliría ya que si no existe ninguna propiedad de estas características no habría cambios en la recaudación de los impuestos. Pero en el caso de que las hubiera, se produciría un aumento en dicha recaudación.

**3. ZUZENKETA**

**ENMIENDA 3**

BOZKETAREN EMAITZA: EZ ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: NO APROBADA.

ALDEKO BOTOAK: 1 - ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE.

KONTRAKO BOTOAK: 7 - PSE-EE (PSOE).

ABSTENTZIOAK: 9 - EH Bildu (4), Eibarko EAJ-PNV (5).

VOTOS A FAVOR: 1 - ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE.

VOTOS EN CONTRA: 7 - PSE-EE (PSOE).

ABSTENCIONES: 9 - EH Bildu (4), Eibarko EAJ-PNV (5).

2023ko zerga-ekitaldian energia elektrikoa, gasa edo hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen enpresa titularrek tokiko jabari publikoa erabiltzeagatiko edo aprobetxatzeagatiko tasa izapidetzeko eta onartzeko beharrezkoak diren azterlanei eta kudeaketei ekiteko proposamena.

Inicio de los correspondientes estudios y gestiones necesarias para la tramitación y aprobación en el ejercicio fiscal de 2023 de una tasa por la utilización o aprovechamiento del dominio público local por las empresas titulares de instalaciones de transporte de energía eléctrica, gas o hidrocarburos.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Aurrekontu-egonkortasunaren eta -iraunkortasunaren printzipioari dagokionez.

Zerga berri hau energia elektrikoa, gasa edo hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen titular diren enpresei aplikatzeak diru-sarrera berriak ekarriko lizkioke Udalari, eta ez lieke eragingo aurrekontu-egonkortasunaren printzipioari, ezta iraunkortasunaren printzipioari ere.

En cuanto al principio de estabilidad presupuestaria y principio de sostenibilidad.

La aplicación de este nuevo impuesto a las empresas titulares de instalaciones de transporte de energía eléctrica, gas o hidrocarburos reportaría nuevos ingresos a las arcas municipales, no afectaría al principio de estabilidad presupuestaria ni al principio de sostenibilidad.

Horren ondorioz, Elkarrekin Podemos-

En consecuencia, al ser rechazadas

Ezker Anitza–IU-Alianza Verde udaltaldeak aurkeztutako zuzenketa guztiak baztertu direnez, 2023ko urriaren 2ko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordearen irizpena jarri da botaziopean.

todas las enmiendas presentadas por el grupo municipal Elkarrekin Podemos, Ezker Anitza - IU, Alianza Verde, se procede a la votación del Dictamen de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 2 de octubre de 2023.

**BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.**

ALDEKO BOTOAK: : 7 - PSE-EE (PSOE).

KONTRAKO BOTOAK: 1 - ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE.

ABSTENTZIOAK: 9 - EH Bildu (4), Eibarko EAJ-PNV (5).

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.**

VOTOS A FAVOR: 7 - PSE-EE (PSOE).

VOTOS EN CONTRA: 1 - ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE.

ABSTENCIONES: 9 - EH Bildu (4), Eibarko EAJ-PNV (5).

**Ordenantza Fiskalak eta Prezio Publikoak aldatzea 2024. urterako**

**Modificación de Ordenanzas Fiscales y de precios públicos para el año 2024.**

Ikusita Alkatetzaren 2023ko irailaren 25ko proposamena, zenbait ordenantza fiskal eta prezio publikoren aldaketari buruzkoa.

Vista la propuesta de Alcaldía, de 25 de septiembre de 2023, relativa a la modificación de diversas ordenanzas fiscales y de precios públicos.

Ikusita Udaleko Idazkariak eta Diruzain andreak egindako txostena, 2023ko irailaren 25ekoa.

Visto el informe emitido por el Secretario y la Tesorera Municipales, de 25 de septiembre de 2023.

Kontuan hartuta Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Gipuzkoako Lurralde Historikoko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak xedatutakoa.

Considerando lo dispuesto en la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio, del Territorio Histórico de Gipúzkoa, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

Kontuan hartuta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikuluan ezarritakoa

Considerando lo dispuesto en el artículo 22.2 d) de la Ley 7/1985 de 2 de abril reguladora de las Bases del Régimen Local.

Kontuan hartuta Kontu, Ogasun Eta Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena, 2023ko urriaren 2koa.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 2 de octubre de de 2023,

Udal Osoko bilkurak, honako erabaki hau hartu du:

El Pleno Municipal, adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**I)** ONARTZEA 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egongo diren ordenantza fiskaletako eta prezio publikoetako aldaketak, LEHENENGO puntutik ZORTZIGARRENERA bitartean jasotakoak, alegia.

**I)** APROBAR la modificación de Ordenanzas Fiscales y Precios Públicos que tendrán efectos a partir del día 1 de enero de 2024, y que se recogen en los puntos PRIMERO a OCTAVO.

**II)** Ondorengo ataletan aipatutako akordio hauei dagozkien ordenantzak eta gaiaren inguruan instruitutako espedienteak jendaurrean jartzea 30 lanegunez erreklamazioak egiteko.

**II)** SOMETER a información pública por el plazo de 30 días hábiles, a efectos de reclamaciones, los acuerdos a que hacen referencia los siguientes puntos las ordenanzas correspondientes y los expedientes al efecto instruidos**.**

**III)** Akordioak behin betiko bilakatuko dira beste akordio berri bat hartzeke, informazio publikorako arauzko epe horretan ez bada inongo erreklamaziorik egiten, 2024 urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

**III)** Los acuerdos adoptados devendrán definitivos, si transcurrido el plazo reglamentario de información pública no se hubiera producido reclamación alguna, entrando en vigor el 1 de enero de 2024.

<u>Ordenantza fiskalak eta Prezio Publikoak aldatzea</u>

<u>Modificación de ordenanzas fiscales y de Precios Públicos</u>

**<u>LEHENENGOA:</u>** ERAIKUNTZEN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

**Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza fiskaleko 5. artikulua ALDATZEA. Honela geldituko da idatzita:**

*5. artikulua*

*1. % 95aren hobaria edukiko dute zertarako nagusia etxebizitzetarakoa izatea duten eraikinak zaharberritzeko obrek eta Ondare Urbanizatuaren eta Eraikiaren Birgaikuntzarako babestutako jardunen inguruko 317/2002 dekretuak esandakoaren babespean jartzeko modukoak izan daitezkeenek. Beste erabilera batzuetarakoak diren lokalak etxebizitza bihurtzekoak hemendik kanpo geratzen dira eta baita etxebizitzak bizitegi-unitate ezberdinetan banatzeko lanak ere, hiri-etxebizitzak nahiz landa-etxebizitzak izan.*

*2. % 50aren hobaria edukiko dute Babes Ofizialeko Etxebizitzak egiteko eraikuntzek, instalazioek eta obrek.*

**<u>PRIMERO:</u>** ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS

**MODIFICAR el artículo 5 de la Ordenanza fiscal reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras que quedaría redactado de la siguiente manera:**

*Artículo 5.*

*1. Gozarán de una bonificación del 95% las obras de rehabilitación de edificios cuyo destino principal sea el de vivienda y que sean susceptibles de acogerse al decreto 317/2002, sobre actuaciones protegidas de Rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado, con exclusión de las operaciones de reconversión en viviendas de locales destinados a otros usos y de las operaciones de división de viviendas tanto urbanas como rurales en diferentes unidades residenciales*

*2. Gozarán de una bonificación del 50% las construcciones, instalaciones u obras referentes a construcción de Viviendas de Protección Oficial*

*Hobaria ofizioz aplikatuko du Udalak.*

*La bonificación se aplicará de oficio por el Ayuntamiento.*

*3. % 90aren hobaria edukiko dute ezinduen irisgarritasun baldintzak eta bizitzeko egokitasun baldintzak hobetzeko eraikinek, instalazioek eta obrek. Hobari hori, ezinduen irisgarritasun baldintzak eta bizitzeko egokitasun baldintzak hobetuko dituen obraren aurrekontu-zatiari aplikatuko zaio.*

*3. Gozarán de una bonificación del 90% las construcciones, instalaciones y obras que favorezcan las condiciones de acceso y habitabilidad de los discapacitados. La bonificación se aplicará sobre la parte del presupuesto de la obra que directamente favorezca las condiciones de acceso y habitabilidad de los discapacitados*

*Hobaria interesdunak eskatu beharko du; hura lortzeko, likidazioa ordaintzeko borondatezko*

*epea amaitu baino lehen eskatu beharko da*

*La bonificación es de carácter rogado, para obtenerla deberá solicitarse antes de que finalice el plazo voluntario de pago de la liquidación.*

*4. % 60aren hobaria izango dute Matxaribarren 3. ILU izeneko sektorean Sektore Publikoko erakundeek egindako eraikuntzek, instalazioek edo obrek, beti ere, interes berezikoak edo udal erabilgarritasunekotzat deklaratuta badaude; deklarazio hori justifikatzeko enplegua sortu behar dute eta industria-jarduera sustatu. Deklarazio hori egitea udal osoko bilkurari dagokio eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin. Hobaria lortzeko, likidazioa ordaintzeko borondatezko epea amaitu baino lehen eskatu beharko da.*

*4. Gozarán de una bonificación del 60% las construcciones, instalaciones u obras realizadas por entes pertenecientes al Sector Público, en el sector denominado SAPUI-3 Matxaribarren, que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por motivo de creación de empleo y fomento de la actividad industrial, que justifiquen tal declaración. Corresponderá dicha declaración al Pleno de la corporación y se acordará previa solicitud del sujeto pasivo, por voto favorable de la mayoría simple de sus miembros". Para obtenerla deberá solicitarse antes de que finalice el plazo voluntario de pago de la liquidación.*

*5. % 95erainoko hobaria izango dute sektore publikoko erakundeek ERISONO izeneko sektorean egiten dituzten eraikuntza, instalazio edo obrek, baldin eta enplegua sortu eta industria-jarduera sustatzeagatik interes edo onura berezikotzat aitortzen badira eta aitortza hori justifikatzen badute. Aitortza edo deklarazio hori Udalbatzarrak onartu beharko du eta subjjektu pasiboak aurretik eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin. Hobaria lortzeko, likidazioa ordaintzeko borondatezko epea amaitu baino lehen eskatu beharko da.*

*5. Gozarán de una bonificación de hasta el 95% las construcciones, instalaciones u obras realizadas por entes pertenecientes al Sector Público, en el sector denominado ERISONO, que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por motivo de creación de empleo y fomento de la actividad industrial, que justifiquen tal declaración. Corresponderá dicha declaración al Pleno de la corporación y se acordará previa solicitud del sujeto pasivo, por voto favorable de la mayoría simple de sus miembros. Para obtenerla deberá solicitarse antes de que finalice el plazo voluntario de pago de la liquidación.*

*6. Zuzkidura-bizitokiak eraikitzeko, % 95aren hobaria izango dute sektore publikoko erakundeek egindako eraikuntzek, instalazioek edo obrek interes berezikotzat edo udal erabilgarritasunekotzat deklaratuta badaude, deklarazio hori egitea justifikatzen duten gizarte-inguruabarrak daudelako. Deklarazio hori Udalbatzak egin behar du eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin. Hobaria lortzeko, likidazioa ordaintzeko borondatezko epea amaitu baino lehen eskatu beharko da.*

*6. Gozarán de una bonificación de un 95% las construcciones, instalaciones y obras realizadas por entes pertenecientes al sector público, para la construcción de alojamientos dotacionales, que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales que justifiquen tal declaración. Corresponderá dicha declaración al Pleno de la Corporación y se acordará, previa solicitud del sujeto pasivo, por el voto favorable de la mayoría de sus miembros. Para obtenerla deberá solicitarse antes de que finalice el plazo voluntario de pago de la liquidación.*

*Ateratzen den kuotari uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauaren d) atalak aurreikusten duen % 50aren hobaria aplikatuko zio babes ofizialeko etxebizitzei dagokien eraikuntza, instalazio eta obretan.*

*Sobre la cuota resultante se aplicará una bonificación del 50%, prevista en el apartado d) de la Norma Foral 15/1989, de 5 de julio, a favor de las construcciones, instalaciones y obras referentes a las viviendas de protección oficial.*

*Aurreko paragrafo bi horietan aurreikusi diren hobariak aplikatzetik ateratzen den kuotari uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauaren e) atalak aurreikusten duen % 90aren hobaria aplikatuko zaio ezinduen irisgarritasun-baldintzak eta bizigarritasun-baldintzak hobetuko dituzten eraikuntza, instalazio eta obretan.*

*Sobre la cuota resultante de la aplicación de las bonificaciones previstas en los dos párrafos anteriores se aplicará una bonificación del 90%, prevista en el apartado e) de la Norma Foral 15/1989, de 5 de julio, a favor de las construcciones, instalaciones y obras que favorezcan las condiciones de acceso y habitabilidad de los discapacitados.*

*7. Eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak barneratzen dituzten eraikuntza, instalazio edo obrek % 95aren hobaria izango dute. Hobari hori aplikatzeko, beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur beroko sanitarioko sistemak (UBS) eduki behar dituzte.*

*7. Gozarán de una bonificación del 95 por 100 las construcciones, instalaciones u obras en las que se incorporen sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar o de otras energías renovables. La aplicación de esta bonificación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores o sistemas de calefacción y agua caliente sanitaria (ACS) que dispongan de la correspondiente homologación de la Administración competente.*

*Hobaria, eguzki-energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termikoa edo elektrikoa duten sistemak barneratzera zuzendutako aurrekontuaren zati horri bakarrik ezarriko zaio.*

*La bonificación se aplicará exclusivamente sobre la parte del presupuesto destinada a la incorporación de sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar o de otras energías renovables.*

*Hobari hau aplikatzeko, obra-proiektua edo txosten teknikoa aurkeztu beharko da, obra-lizentziaren eskaerarekin batera aurkeztu ez bada.*

*Para la aplicación de esta bonificación se deberá presentar el proyecto de obra o la*

*memoria técnica en caso de no haberse presentado junto con la solicitud de licencia de obra.*

*Hobaria interesdunak eskatu beharko du; hura lortzeko, likidazioa ordaintzeko borondatezko epea amaitu baino lehen eskatu beharko da.*

*La bonificación es de carácter rogado, para obtenerla deberá solicitarse antes de que finalice el plazo voluntario de pago de la liquidación.*

*8. Udal interes berezikotzat deklaratzen dira, eta Zergaren kuotan % 95eko hobari bat izango dute, ezusteko edo ezbeharrezko gertaera baten ondorioz izandako kalteak konpontzeko egiten diren obrek, hau da: sute, haizete, ekaitz, urakan, euri-erauntsi, uholde eta leherketen ondorioz izandako kalteen egindako obrek. Hobari hori, ezusteko edo ezbeharrezko gertaera horrek egindako kalteak konpontzeko beharrezkoak diren obren aurrekontuari dagokion zati horri bakarrik aplikatuko zaio.*

*8. Se declaran de especial interés municipal y gozarán de una bonificación del 95% en la cuota del Impuesto, las obras realizadas para la reparación de daños ocasionados como consecuencia de hechos fortuitos o accidentales tales como incendio, huracán, tempestad, temporal, tromba, inundación y explosión. La bonificación se aplicará exclusivamente a la parte del presupuesto de la obra necesaria para realizar las reparaciones causadas por el hecho fortuito o accidental.*

*Hobaria interesdunak eskatu beharko du; hura lortzeko, likidazioa ordaintzeko borondatezko epea amaitu baino lehen eskatu beharko da.*

*La bonificación es de carácter rogado, para obtenerla deberá solicitarse antes de que finalice el plazo voluntario de pago de la liquidación.*

*9. Udalaren interes berezikotzat deklaratzen dira udalerriko baserrietan egindako obrak, nekazaritza eta abelazkuntza jarduerarekin zuzenean lotutakoak; horregatik, % 95aren hobaria izango dute Zergaren kuotan. Hobaria jaso ahal izateko, nekazaritza- eta abelazkuntza-jarduera horren titularrek Gizarte Segurantzaren norberaren konturako nekazarien araubide berezian alta emandakoa izan behar dute.*

*9. Se declaran de especial interés municipal y gozarán de una bonificación del 95% en la cuota del Impuesto, las obras realizadas en caseríos del término municipal y que estén directamente vinculadas a actividades agropecuarias. Para poder acceder a la bonificación, las personas titulares de dicha explotación agropecuaria deberán encontrarse en situación de alta en el régimen especial de trabajadores por cuenta propia agrario de la seguridad social.*

*Hobaria interesdunak eskatu beharko du; hura lortzeko, likidazioa ordaintzeko borondatezko epea amaitu baino lehen eskatu beharko da.*

*La bonificación es de carácter rogado, para obtenerla deberá solicitarse antes de que finalice el plazo voluntario de pago de la liquidación.*

*10. Udal titulartasuneko higiezinetan egindako obrak Udalaren interes berezikotzat hartzen dira eta Zergaren kuotan % 95eko hobaria izango dute, baldin eta higiezin horien erabilera udalerriko irabazi asmorik gabeko elkarteei edo kirol-klubei*

*10. Se declaran de especial interés municipal y gozarán de una bonificación del 95 % en la cuota del Impuesto, las obras realizadas en inmuebles de titularidad municipal cuyo uso haya sido cedido mediante convenio a*

*hitzarmen bidez laga bazaie, eta horien urteko aurrekontua 1.000.000,00 eurotik beherakoa bada.*

*asociaciones o clubes deportivos sin ánimo de lucro del término municipal cuyo presupuesto anual no supere 1.000.000,00 euros.*

*Hobaria interesdunak eskatu beharko du; hura lortzeko, likidazioa ordaintzeko borondatezko epea amaitu baino lehen eskatu beharko da.*

*La bonificación es de carácter rogado, para obtenerla deberá solicitarse antes de que finalice el plazo voluntario de pago de la liquidación.*

**BIGARRENA:** HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

**SEGUNDO:** ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE EL INCREMENTO DEL VALOR DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA

**Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza fiskaleko 4. artikulua ALDATZEA. Honela geldituko da idatzita:**

**MODIFICAR el artículo 4 de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana que quedaría redactado de la siguiente manera:**

*4. artikulua*

*1. Zerga honen zerga-oinarria lurren balio gehikuntza da, hain zuzen ere, sortzapenaren unean agerian jarri eta gehienez ere hogei urteko epean izandakoa. Haren zenbatekoa eragiketa honen emaitza izango da, artikulu honen 4. Apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe: sortzapenaren unean lurrarri kalkulatu zaion balioa bider 3. Apartatuaren arabera sorreraldiari dagokion koefizientea.*

*Artículo 4.*

*1. La base imponible de este impuesto está constituida por el incremento del valor de los terrenos puesto de manifiesto en el momento del devengo y experimentado a lo largo de un periodo máximo de veinte años, y se determinará, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 4 de este artículo, multiplicando el valor del terreno en el momento del devengo por el coeficiente que corresponda al periodo de generación conforme a lo previsto en su apartado 3.*

*2. Sortzapenaren unean lurrak zer balio duen zehazteko, erregela hauek aplikatuko dira:*

*2. El valor del terreno en el momento del devengo resultará de lo establecido en las siguientes reglas:*

*a) Lurren eskualdaketetan, sortzapenaren unean duten balioa ondasun higiezinen gaineko zergaren ondorioetarako une horretantxe dutena izango da.*

*a) En las transmisiones de terrenos, el valor de estos en el momento del devengo será el que*

*Hala ere, balio hori balio ponentzia baten ondorio bada, eta ponentzia horretan ez badira islatzen hura onartu ondoren onartu diren planeamendu-aldaketak, zilegi izango da zerga honen behin-behineko likidazio bat egitea balio ponentzia horretatik abiatuta. Horrelako kasuetan, behin betiko likidazioan aplikatuko den balioa kasuan kasuko balio ponentziaren aldaketaren edo balioen berrikuspenean xedatutakoaren arabera ateratzen dena izango da, betiere sortzapen data erreferentzia hartuta. Data hori ez badator bat katastro balio berrien eragin datarekin, balio horiek zuzenduko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontuen foru arauetan ezartzen diren eguneratze koefizienteak aplikatuta.*

*tengan determinado en dicho momento a efectos del impuesto sobre bienes inmuebles.*

*No obstante, cuando dicho valor sea consecuencia de una ponencia de valores que no refleje modificaciones de planeamiento aprobadas con posterioridad a la aprobación de la citada ponencia, se podrá liquidar provisionalmente este impuesto con arreglo a aquel. En estos casos, en la liquidación definitiva se aplicará el valor de los terrenos una vez se haya obtenido conforme a la modificación de la ponencia de valores o la revisión de los valores que se instruya, referido a la fecha del devengo. Cuando esta fecha no coincida con la de efectividad de los nuevos valores catastrales, estos se corregirán aplicando los coeficientes de actualización que correspondan, establecidos al efecto en las normas forales de presupuestos del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

*Gertatzen bada kasuan kasuko lurrak, hiri izaerakoa izanik ere, zergaren sortzapenaren unean oraindik ez daukala zehaztuta inolako katastro baliorik, Udalak katastro balio hori finkatzen denean egingo du likidazioa, sortzapenaren unean dagoen balioa aintzat hartuta.*

*Cuando el terreno, aun siendo de naturaleza urbana, en el momento del devengo del impuesto, no tenga determinado valor catastral en dicho momento, el ayuntamiento practicará la liquidación cuando el referido valor catastral sea determinado, refiriendo dicho valor al momento del devengo.*

*b) Jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealen eraketan eta eskualdaketan, artikulu honen 3. Apartatuan aipatutako urteko portzentajeak aplikatuko dira kontuan izanik aurreko a) paragrafoan definitutako baliotik zer zati dagokien aipatu diren eskubideei. Eskubide horien balioa ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren ondorioetarako ezarritako arauak aplikatuz kalkulatuko da.*

*b) En la constitución y transmisión de derechos reales de goce limitativos del dominio, los porcentajes anuales referidos en el apartado 3 de este artículo se aplicarán sobre la parte del valor definido en el párrafo a) anterior que represente, respecto de aquel, el valor de los referidos derechos calculado mediante la aplicación de las normas fijadas a efectos del impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados.*

*c) Eraikin edo lursail baten gainean solairu bat edo gehiago jasotzeko edo lur azpian eraikitzeko eskubidearen eraketan edo eskualdaketan —lurrazal eskubide erreal bat izan gabe ere—, artikulu honen 3. apartatuan aipatutako urteko portzentajeak aurreko a) paragrafoan definitutako balioaren gainean aplikatuko dira, baina, kasu honetan, kontuan izanik balio horretatik zer zati dagokion eskualdaketaren eskrituran finkatutako proportzionaltasun moduluari edo, halakorik ezean, lur gainean edo lur azpian eraikiko diren*

*c) En la constitución o transmisión del derecho a elevar una o más plantas sobre un edificio o terreno, o del derecho de realizar la construcción bajo suelo sin implicar la existencia de un derecho real de superficie, los porcentajes anuales referidos en el apartado 3 de este artículo se aplicarán sobre la parte del valor definido en el párrafo a) que represente, respecto de aquel, el módulo de proporcionalidad fijado en la escritura de transmisión o, en su defecto, el que resulte de*

*solairuen azalera edo bolumenaren eta eraikitako azalera edo bolumen osoaren arteko proportzioari horiek behin eraiki ondoren.*

*establecer la proporción entre la superficie o volumen de las plantas a construir en vuelo o subsuelo y la total superficie o volumen edificados una vez construidas aquellas.*

*d) Nahitaezko desjabetzeen kasuan, artikulu honen 3. Apartatuan aipatutako urteko portzentajeak lurraren balio justuaren zatiari aplikatuko zaizkio, salbu eta aurreko 2. Apartatuko a) paragrafoan definitutako balioa txikiagoa bada, kasu horretan, azken hori hartuko baita, ez balio justua.*

*d) En los supuestos de expropiaciones forzosas, los porcentajes anuales referidos en el apartado 3 de este artículo se aplicarán sobre la parte del justiprecio que corresponda al valor del terreno, salvo que el valor definido en el párrafo a) del apartado 2 anterior fuese inferior, en cuyo caso prevalecerá este último sobre el justiprecio.*

*3. Balio gehikuntzaren sorreraldia gehikuntza hori agerian jartzeko igarotako urte kopurua izango da.*

*3. El periodo de generación del incremento de valor será el número de años a lo largo de los cuales se haya puesto de manifiesto dicho incremento.*

*Eragiketak zergari lotuta ez dauden kasuetan, eta, betiere, foru arau bidez besterik esaten ez bada, lurraren geroko eskualdaketa batean balio gehikuntzaren sorreraldia zenbatekoa izan den kalkulatzeko, eskurapen datatzat zergaren azken sortzapena gertatu zen data hartuko da aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako.*

*En los supuestos de no sujeción, salvo que por norma foral se indique otra cosa, para el cálculo del periodo de generación del incremento de valor puesto de manifiesto en una posterior transmisión del terreno, se tomará como fecha de adquisición, a los efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, aquella en la que se produjo el anterior devengo del impuesto.*

*Igarotako urte kopuruaren konputuan urte osoak hartuko dira, hau da, urte zatikiak aintzat hartu gabe. Sorreraldia urtebetetik beherakoa bada, urteko koefizientea hainbanatuko da hilabete osoen kopurua kontuan hartuta, hau da, hilabete zatikiak aintzat hartu gabe.*

*En el cómputo del número de años transcurridos se tomarán años completos, es decir, sin tener en cuenta las fracciones de año. En el caso de que el periodo de generación sea inferior a un año, se prorrateará el coeficiente anual teniendo en cuenta el número de meses completos, es decir, sin tener en cuenta las fracciones de mes.*

*Sortzapenaren unean lurrak duen balioari (aurreko apartatuetan xedatu da nola kalkulatu balio hori) balio gehikuntzaren sorreraldi bakoitzerako indarrean dagoen gehieneko koefizientea aplikatuko zaio, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 4.3 artikuluak ezarritakoari jarraituz.*

*El coeficiente a aplicar sobre el valor del terreno en el momento del devengo, para cada periodo de generación del incremento de valor, calculado conforme a lo dispuesto en los apartados anteriores, será el máximo que se encuentre vigente de acuerdo con lo establecido en el artículo 4.3 de la Norma Foral 16/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.*

*Aipatutako xedapenean aurreikusitako gehieneko koefizienteak eguneratuz gero, alkateari ahalmena ematen zaio aplikagarriak diren koefiziente berriak ebazpen bidez argitaratzeko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, baita udalaren web-orrian eta iragarki-taulan ere.*

*En caso de actualización de los coeficientes máximos previstos en la citada disposición, se faculta a la alcaldía para, mediante resolución, dar publicidad en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, así como en la página web y tablón de anuncios del ayuntamiento, a los nuevos coeficientes que resulten aplicables.*

*4. Subjektu pasiboak eskaturik, zergaren foru-arauaren 1. artikuluko 3. apartatuan ezarritako prozedurari jarraituz, egiaztatzen bada balio gehikuntzaren zenbatekoa txikiagoa dela artikulu honetako aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga-oinarriaren zenbatekoa baino, balio gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat.*

*4. Cuando, a instancia del sujeto pasivo, conforme al procedimiento establecido en el apartado 3 del artículo 1 de la norma foral del impuesto, se constate que el importe del incremento de valor es inferior al importe de la base imponible determinada con arreglo a lo dispuesto en los apartados anteriores de este artículo, se tomará como base imponible el importe de dicho incremento de valor.”*

**Hiri-lurren Balio Gehikuntzeren gainekoa Zerga arautzen duen Ordenantza fiskalaren 1.eranskina EZABATZEA (non koefizienteak jasotzen diren) eta 2. Eranskina IZENEZ ALDATZEA. Azken eranskin hori 1. Eranskina izango da aurrerantzean, eta horrela geratuko da idatzita:**

**ELIMINAR el Anexo 1 de la Ordenanza fiscal reguladora del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana (donde se recogen los coeficientes) y RENOMBRAR el Anexo 2, que pasaria a ser Anexo 1 y que quedaría escrito de la siguiente manera:**

**1. ERANSKINA** / **ANEXO 1**

**KARGA-TASA** / **TIPO DE GRAVAMEN**

| *URTEAK* | *%* | *AÑOS* | *%* |
|---|---|---|---|
| *5 urtera arteko aldia* | *% 15* | *Periodo hasta 5 años* | *15 %* |
| *6tik 10 urtera arteko aldia* | *% 14* | *Periodo de 6 a 10 años* | *14 %* |
| *11tik 15 urtera arteko aldia* | *% 13* | *Periodo de 11 a 15 años* | *13 %* |
